



Haizeteak txikizioa eragin du landa-eremuan

Tamaina handiko dozenaka zuhaitz eraitsi ziren aurreko asteburuan, haixe-ufaden eraginez. Agerikoa da kaltea Andoaingo Goiburu aldean / 2-5

AIURRI

ANDOAINGO EUSKERA, BIHOTZETIK KALERA!

BASTERON jaialdia

ABENDUAK 5 19:30

Bete dezagun
Basteroko
auditorioa!



Sarrerak salgai:
Elizondo taberna eta
Delgado liburudenda



Olagain Udal txistulari elkarte / Urki Dantza Taldea / Begoña Tolaretxipi /
Rebeka Gestoso & Susana Cencillo / Ramon Beraza / Lizar Makil dantza taldea /
Iñaki Eizmendi / Alberto Agirre abesbatza / Maizorri / Eneritz Jauregi /
Iratxo taldea / Mujika-Tolaretxipi familia, eta gehiago...





Zinkoborda baserria, airetik ateratako argazkian. Dozena erdi bat zuhaitz eraitsita ageri dira eta, ondoan dagoen Goiburu Golfeko instalakuntzatan askoz gehiago erori ziren. AIURRI

Haizearen indarra

Pagoak, haritzak, pinuak, haritz amerikarrak... Ilara osoak eraitsita daude Goiburu aldean, asteburuko haize-ufaden ondorioz

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Natura eta materia guztiaren konplexutasuna azaltzeko, Antzinako Greziatik datozen elementu klasikoak dira lurra, ura, sua eta airea. Azken horren aldaeratzat har daiteke haizea, eta aurreko igandean haize-ufa-

da bortitzek gutxitan ez bezalako eragina izan zuten naturan eta materian. Astelehen goizean, Goiburu aldera iritsi eta tamaina horretako zuhaitz handiak bertatik bertara ikustean, zirra berezia sentitzea saihestezina zen.



Sustraien zabalera eta enborearen loditasuna, eraitsi berri den zuhaitzean. Bertatik bertara zirra berezia eragiten du. AIURRI



Goiburu Golfeko Kepa Etxezarreta eta Zinkoborda baserriko Juan Antonio Zipitria, astelehen eguerdian ateratako argazkian. AIURRI

"Ez dugu horrelakorik ezagutu inoiz"

Elkarren ondoan dira Goiburu Golf kluba eta Zinkoborda baserria. Goiburu Golfeko Ibon Arregi eta Kepa Etxezarreta nagusientzat eta Zinkobordako Juan Antonio Zipitria nahiz Mari Karmen Irasuegikentzat inoiz ikusi gabeko gertaera izan zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Igandeko naturaren erauntsi fisikoa jada atzean utzi arren, bizitutako inpresioa oraindik ere burutik eta gorputzetik kendu ezinik. Horrela topatu genituen astelehen goizean, begien parean zuten hondamendiari begira-begira. Zinkoborda baserrian zein etxean bizi diren Mari Karmen Irasuegik eta Juan An-

tonio Zipitriak ez daukate ahazteko moduan igande goiz zalapartatsu hura, hegoi-mendebaldeko haize bortitzak eragindakoa.

Irasuegik aitortu zuenez, senarra, bi seme-alabak eta lauak, goizaldeko 08:00ak aldera hasi ziren igartzen bazetorrela latza: "Goizaldera jada bazebilen haizea gogor, baina 08:30etik aurrera hasi zen areagotzen, eta 09:30ak

aldera, hor non eraman zituen aurretik gure etxe inguruko bost zuhaitz! Ipurditik atera zituen haize-kolpeak, ilaran atera ere! Hiru haritz eta bi intxaurrondo. Hortarako, etxe ondoko intxaurrondo bat jo genuen begiz, balantzaka baitzebilan ezker-eskuin, erori, ez erori. Hari begira erabat harrirituta eta izututa geunden, eta erortzera zihoala, mugiko-

bizi izan dituzte zutik; beharbada berrehun bat urte egingo zituzten gaur arte".

Irasuegik gaineratu duenez, beraiantzat hondamena ez da hor bukatu. Izan ere, txabola kaltetu dute, eta, horrez gain, Zinkobordatik nahiko urrun, beherago daukaten lur sailean ere haritz gazte mordoa bota du haizeteak.

Kalteak kalte, Mari Karmen Irasuegik eta Juan Antonio Zipitriak kontsolamendu txikia hartzeko moduan egon daitezke: eskapada ederretik libratu baitira, izan ere, hego-mendebaldeko haizea izan ez balitz, beste norabidekoa alegia, beren bi etxeetara gainera etorriko zitzaizkien zuhaitzen bat edo beste, beharbada.

Goiburu Golfeko Kepa Etxezarretak eta Ibon Arregik ere sinetsi ezinik jarraitzen zuten astelehen goizean. Hala mintzatu zen Arregi: "25 urteko ibilbidea egin dugu hemen, eta sekula ez dugu halako hondamenarik ezagutu! Ikusita haizetearen eragin latza, goizean goiz bertan behera utzi genituen golf zelaian jokatzeko aukera eta jatetzeko zerbitzua".

rrarekin bideotxo egiteko aukera eduki genuen". Egiazki, egundoko ikusmina eragin du egunotan Irasuegik hizpide duen bideo labur bezain ikusgarri hori, eta egokia izan daiteke haizetearen dimentsioaz eta indarraz jabetzeko.

80 urtetara doan Juan Antonio Zipitriak sekula ez duela halako haize-ufadarik ikusi aitortu zigun: "Bagenekien Goiburuko alde hau haize-tokia dela, baina halako indarrarekin ez dut sentitu sekula. Nik beti ezagutu izan ditut orain etzanda diren bost zuhaitz horiek, makina bat ekaitz

Hektarea ugari ditu Goiburu Golf klubak, eta pagoez, platanondoez eta haritzez inguratuta dago. Ehun urtetik gora dituzte hainbatek. Horiei guztiei begira jarrita, kalteen atalean aurreneko estimazio bat eginda, Etxezarretak aipatu du 30 zuhaitzetik gora izango direla haizeteak sustraitik bota dituenak. Era berean, golf etxeko teiltuaren zati bat ere kaltetuta geratu da.

Goiburu Golfaren eta Zinkobordaren artetik doan eta Karrera aldeko Ortzaika baserri-raino jaisten den herri bidean ere eragin ditu kalte nabarmenak.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Haize-ufaden eragina herrigunean eta landa-eremuan

ARGAZKIAK ETA BIDEO-SORTA

www.aiurri.eus



Sorabillan ere hainbat zuhaitz erori ziren. Irudian, Borda Txiki. AIURRI

Ospitalean osatzen ari da Andoainen zauritutako pertsona



Kalte materialak handiak izan dira Andoainen, eta ia-ia ezbehar larria gertatu zen. Igande eguerdian, Zumea kalean, eraikin batetik eroritako teila batek herritar baten burua kolpatu zuen. Unean bertan konortea galdu eta ospitalera eraman zuten, haustura bat baino gehiagorekin. Geroztik, ospitalean sendatzen ari da. Zorionez, arriskutik kanpo dago pertsona hori.

Egoera bere onera etortzeko lanean aritu dira eragile ugari



Udaltzaingoa, Udal langileak, baserritarrrak, boluntarioak, Ertzaintza, ambulanzietako langileak, eta suhiltzaileak lan eta lan aritu ziren egoerari aurre egineteko xedez. Lehen unetik, Udalak ohar batean laburbildu zuenez, "pertsontzat oztopo izan zitezkeen eremuen garbiketa eta auzo guztietarako sarbideak bermatzea" premiazkoa izan baitak. Eragozpen handienak kanpoaldeko auzoetan eta baserri-bideetan izan dira.

Ezusteko handia hartu zuten Allurralde kiroldegian

Euskadiko eta Britainia Handiko emakumezko selekzioen eskubaloi partida hasteko minutu gutxiren faltan, harmailera erori zen beira-zati handi bat. Zorionez, harmailetan hautsi aurretik, bertan ziren ikusleek erreakzionatzeko aukera izan zuten. Ez zen hori haize-ufadek Allurralden eragin zuten kalte bakarra. Sarrera nagusiko leiho handi bat hautsi zen ere. Igerilekuko sabaialdea ere kaltetu zen. Orain igerileku handia zabalik da, baina txikia oraindik ez. Udalerriko gainerako kirol instalakuntzei dagokionez, Goiburuko frontoiak ere kalte handiak ditu.



Besabiko bidean errepidearen zabalera osoa hartu zuen eraitsitako zuhaitzak. X



Allurraldeko harmailera erori zen beirazko xafla handia, igande eguerdian. AIURRI



Eraitsitako zuhaitzak Lizarkola pasealekuan. ENEKOITZ TELLERIA



Haizeteak kalte material handia eragin du Goiburuko frontoiaren gaikaldean. SALBADOR



Kanaletan ere nabarmena zen haizetearen eragina. ENEKOITZ TELLERIA



DANAK kaltetutako en aldeko jaialdian parte hartu zuten eragile gehien-gehienak, oholdza gaineen. Hainbat argazki eta bideo, Aiurriren webgunean. AIURRI

Andoain solidarioa da

Andoaingo gizarte eta kultur alorreko eragile ugari bat egin zuen Andoain Solidario ekimenak Valentziako herriaren alde abiatu zuen kanpainarekin. Bildutako diruaren hartzailegoa izaera sozialekoa izango da

Xabier Lasa ANDOAIN

Zehazki esanda, Andoainen bildutako dirua bi ekimen zehatzera bidaliko da. Batetik, Arreta Gabezia eta Hiperaktibotasuna ardatz duen TDAH 16+ Valencia elkartera. Bestetik, DANAK larriki kaltetutako Paiporta herrian bizi den Beni neskatilarentzat.

Garun-paralisiarekin jaio zen, eta mugikortasun murriztua du. Diru-bilketa lortzeko ezinbestekoa izan zen herriko eragileen ekarpena. Honatx, oholdzara igo ziren taldeak: Maizorri Txalaparta

Eskola (Maite Sagaseta eta Miren Lopez de Munain), Klaap Dantza Eskola, Joseba&Bakartxo Dantza Eskola (dantza urbanoko taldea), Sevillanak (Zuena elkarte), Andoaingo Punttuka Bertso Eskolako gazteak, Azelain Ballet Elkarte, Urki Dantza Taldea, Olagain Udal Txistulari Elkarte, Maddi Parada (biolontxelo) eta Salva Parada (akordeoa), Una Garcia abeslaria, Malkogariyak, Kanbalatxe Tango hirukotea (Fede Abreu, Imanol Iribarren eta Salva Parada). Ainhoa Aier-tza izan zen aurkezlea.



Erosi Andoainen

*Zuretzat dena bat dena,
zure herriarentzat dena da.*

ONLINE BAZAUDE, ANDOAINEN EZ ZAUDE

S2
SALKIN
bertatik bertara

ANDOAINGO UDALA

Euskadi,
argotzen, hasi omen
EUSKADIKO GOBIERNO VASCO

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Andoain Solidario
jaialdia
Bastero Kulturgunean

ARGAZKIAK ETA BIDEO-SORTA

www.aiurri.eus

Epe laburreko eta luzeko partida nagusiak adosteko prest da EAJ

2024an egin bezala, jeltzaleek proposamen zehatzak egin dituzte 2025eko Udal aurrekontuei begira

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Udal administrazioan, han eta hemen, aste biziak dira. Jokoan dagoena ez baita txikia: urte berriko aurrekontuak bideratzea. Andoaingo Gobernu taldeak (EH Bildu), iaz, jeltzaleen babesa jaso zuen eta, aurten ere, bide beretik doazela dirudi. Hori bai, beti ere, jeltzaleen proposamenak aintzat hartzen badira. Berriki, Andoaingo EAJ-PNVk oharra argitaratu du: "2024an Gobernu taldearekin akordio mardula itxi ondoren, betetze mailaren jarraipena egiten ari gara. Eki-men gehienak martxan ipini direla ikusita, EAJ-PNV prest agertu da Andoaingo Udaleko 2025eko aurrekontuak negoziatzeko". Horretarako, proposamen berriak ipini dituzte mahai gainean: Galardi haurreskolako patioan lurzorua berritzea eta

estalkia egitea, Leizaur parkean komun publiko berria, kaleetako zoruen irristagarritasuna ekiditeko partida berria sortzea edota Bertxingo zentrala eguneratzeko lanak abiaraztea.

Urtez urte ez ezik, etorkizuneko egitasmoetan ere eragin nahi dute jeltzaleek: "EAJ-PNV prest agertzen da epe-ertainera begira herriko inbertsio partida nagusiak adosteko eta horien finantzaketa bermatzeko: Allurralde kiroldegia handitze-obra burutzeko, Allurraldegiko instalazio zaharretan ere eguneratze lanak aurrera eramateko, Udal Liburutegi berria eraikitzeke, Illarramendi gunean Udal pabiloi berria eraikitzeke, Ondarreta kalearen irisgarritasun lanak exekutatzeko edota Leizotz auzoko ur-horniduraren bigarren faseari ekiteko".



Imanol Goenaga Egibar. EAJ-PNV

Imanol Goenaga, Gipuzkoako Buru Batzarreko kide

Maria Eugenia Arrizabalaga da GBBko lehendakari berria, eta haren alboan izango da Imanol Goenaga andoaindarra. Alderdiak nabarmendu duenez, "hamabost burukidetik zortzi berri sartu dira Gipuzkoako EAJ-PNVko zuzendaritzan". Tartean dira Imanol Lasa Foru Aldundiko bozeramaile ohia edota Olatz Peon Tolosako alkate ohia.



AIURRI

Santa Zezilia eguneko kontzertua

Gora Kaletxiki Bandak kontzertua eman zuen Santa Krutz elizan, joan den larunbatean. Musikarien zaindariari gorazarre eginez, Santa Zezilia eguneko emanaldi berezia egin zuten. Joxe Mari Oartzabalen zuzendaritzapean, hainbat konposatzaileen obrak jo zituzten. Tartean, "Donostiako Hiru Damatxo" abesti herrikoia eta Paul Ankaren "My way".



ENDERREN JOKOA ELKARTEA



Rol jokoak, Arraten

Rol-jokoan munduan aski ezaguna den Warhammer lehiaketa izan zen Arrate pilotalekuan, aurreko asteburu osoan. Mundu fantastikoa eta zientzia fikzioa uztartzen dituen mahai-jokoa da, han eta hemen zaletu asko dituen. Enderren Jokoa Andoaingo elkarteak GT Andoain taldekako lehiaketa antolatu zuen eta irabazlea Buttlenbunker Gazteizko taldea izan zen. Argazkian, saridunak.



andoaINDARRA
euskaraz





Batzar aretora hurbildu ziren odol-emaileak eta agintariak. AIURRI

Eskertza-ekitaldia Andoaingo odol-emaileei

Odola ematea gizalegezko ekimena da, garrantzi handikoa. Urtero lez, Andoaingo odol-emaileen elkarteak emaile fidelenak aintzat hartzen ditu euren jokabidea txalotu asmoz. Aurreko ostiralean egin zuten ekitaldia udaletxeko batzar aretoan

Xabier Lasa ANDOAIN
Aurten 25, 50 eta 100 odol-emate gainditu dituzten herriko emai-

leek aitortza jaso zuten Andoaingo Odol-emaileen elkartearen eskutik.

Ekitaldiak hainbat odol emai- le bildu zituen; horien artean, Gipuzkoako Odol-emaileen EL-

karteko lehendakari ordea den Nuria Patino erizain andoain-darra.

"Txalogarria da zuen ekimena"
Andoni Alvarez Lete alkateak hartu zuen hitza ekitaldian, bereziki odol-emaileei eskertza adierazteko. Aldi berean, herriko elkarteko boluntarioak bereziki aipatu nahi izan zituen ezinbestekoa delako beren lana. Segidan, bat egin zuen boluntario horiek herritarren artean zabaltzen duten gonbidapenarekin. Alvarezek aitortu zuenez, bera da azkenaldian odola ema-

teko mezuari erantzun dion herritarretako bat.

"Odola ezin da sortu, ezin da fabrikatu"

Joxe Mari Tolosa Andoaingo Odol-emaileen Elkarteko ordezkariak, orain urte batzuk odola ematea aldarrikatzen zuen kanpainaren leloa –"Odola bizitza da"– hartu zuen gogoan: "Orduko kanpaina horren lerroburua egia borobila da, odolak bizitzak salbatzen baititu. Odola ezin da sortu, ezin da fabrikatu. Zuek ematen duzuen odola ordezkazina da. Ezinbestekoa, zuek bezala".

Diploma bana eskuratu zuten herrikideak

- 25 odol-emateengatik: Garikoitz Asensio Manterola, Joxe Maria Illarramendi Matxain, Maria Angeles Lopez Goya eta Xabier Oiartzun Labaien.
- 50 odol-emateengatik: Alberto Dominguez Hernandez, Emiliano Garcia Jacinto, Olivier Roger Georg Ulmer eta Ricardo Guarretxena Astigarraga.
- 100 odol-emateengatik: Juan Antonio Mendoza Nogales.

"ZUEK EMATEN DUZUEN ODOLA ORDEZKAEZINA DA. EZINBESTEKOA"

JOXE MARI TOLOSA

ZOKKETA

JAIALDIA

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

Andoaingo harpidedunen artean 2 sarrera zozkatuko ditugu.

Parte hartzeko modua:
Idatzi "Bazkuna", zure izen-abizenak eta bidali:
* Whatsapp: 619 163 537
* E-pasta: diseinua@aiurri.eus

Irabazlearen berritasunak Alumi-astekariari emango ditugu

Abenduak 5, osteguna
19:30. Bastero, Andoain

"Guk ez diogu besteren izkuntzarik galdu nai, bañan gure utzi digutela. Zer dauka euskerak, lepra? Munduan den izkuntzarik zafenetakoa dek gurea, orain arte iraun dik, eta guk gaitzen utzi bear al' diogu? Gure aitonen españetako itzak guk galdu? Ba'zakiagu, oraingo itz-eremintak erabiltzen ez ba'ditugu (radio, zine, telebisio ta gañerakpak) gaiduko dala. Oregatik ari gaituk lanean, beste izkuntzei bezela guriari ere bide oiek emateko"

Martin Ugalde



Durangoko Azoka ate joka dugun honetan, Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzea lagungarri izan daiteke. DURANGOKO AZOKA

Katalogoa euskaraz jolastu, dastatu eta partekatzeko

Hego Euskal Herriko makina bat udalek Euskarazko Produktuen Katalogoa ondu dute aurten ere, elkarlanean. Tartean dira, nola ez, Beterri-Buruntza eskualdeko seiak: Andoain, Urnieta, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbil

Erredakzioa LASARTE-ORIA

Euskarazko Produktuen Katalogoa eskolen bidez banatuko dituzte Andoain, Hernani, Urnieta eta Usurbilek; Lasarte-Oriak, aldiz, etxez etxe; eta, Astigarragak, azkenik, eraikin publikoetan eta liburu dendetan. Aurreko urteetan bezala, Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzen duten guztien zentzumenak dantzan jarriko dituzten eskaintza prestatu dute Hego Euskal Herriko udal eta mankomunitatetako ehun Euskara zerbitzu baino gehiagok, Jolastu, dastatu eta partekatu lelopean. Ohi bezala, 0-12 urte arteko haurrei zuzendutakoa da produktu sorta bat, eta 12-16 urte arteko nerabeentzat bestea. Urteko zein garaitan gauden kontuan izanda, sustatzaileek nabarmendu dute "seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburu, musika, jostailu edota jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea" dela. Horrekin batera, gogorarazi dute aurten 26. aldiz kaleratu dutela aipatu bilduma hori.

Bi hamarkada baino gehiago daramatzate euskarazko produktuen katalogoa herritarren eskura jartzen, eta, eskaintzak erakargarri izaten jarrai dezan, itxuraldatu egiten dute maiz. Gauzak horrela, jakinarazi dute paperezko edizioak eta "etengabe" eguneratzen duten atari digitalak (www.katalogoa.eus) "azal berriak" estreinatu dituztela aurten.

Atari digitalean, 10.000 erreferentzia baino gehiago

Paperaren gisako euskarri fisikoek oraindik garrantzi handia badute ere, gero eta pisu gehiago irabazten ari da euskarazko produktuen katalogoaren atari

digitala: webgune horrek 10.000 produktu baino gehiagoren erreferentziak jasotzen ditu dagoeneko. "Bizi-bizirik" dagoen atari digitala da, eguneratuta mantentzeaz arduratzen diren langileek kendu egiten dituztelako dagoeneko deskatalogatuta dauden produktuak, sortzaileek ondu dituzten berriengatik ordezkatzeko. Hori horrela izanik, www.katalogoa.eus-en sartzen direnek aukera izango dute 0-12 urte artekoentzako (7.706 produktu daude gaur-gaurkoz) nahiz 12-16 urte artekoentzako (3.428 produktu daude gaur-gaurkoz) liburu, disko eta bestelakoak ezagutu eta begiz jotzeko, atal bakoitzak bere direktorio propioa duelako. Hartara, tipologia bakoitzeko produktuen bilaketa nabarmen erraztu eta hobetzen da, arrazoi honengatik: produktuak titulu, argitaletxe, autore, adin tarte edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Hori egin ostean erabiltzailearen batak produkturen bat erosi nahi badu, argitaletxearen denda birtualera sartu ahal izango du, Non eskuratu botoia sakatuta.

Paperezko 50.000 eskuorri banatuko dituzte egunotan

Egunotan banatuko dituzte euskarazko produktuen katalogoaren 50.000 ale Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Azken urteotan egin izan duten bezalaxe, euskarri horretan editatzen duten eskuorriak bi atal nagusi izango ditu: azal batek sarbidea emango die 0-12 urte arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako eskaintzara, eta, bestea, 12-16 urte arteko nerabeek dituzten aukeretara. Bilaketa nabarmen errazteaz gain, adin tarte bakoitzari "nortasun



"Olentzero eta Mari Domingiri zer eskatu behar diogun erabakitzeke tresna oso egokia da"

Eguberriak iristear daude eta ez dira gutxi Euskarazko Produktuen Katalogoa erabiltzen duten familiak gure eskualdean, Olentzero eta Mari Domingiri zer eskatu erabakitzeke. Hala egin izan du, esaterako, Puyada-Zatarain familiak. "Tresna oso egokia da, erabiltzeko erraza eta gauzak errazten dizkiguna. Eta gustatzen zaigu, batez ere, euskarazko eskaintza dakarrelako". Etxean jasotako paperezko eskuorria erabili izan dute normalean baina begiratu izan dute atari digitala ere,

oparitarako eskatu beharrekoa zerrendan idazteko gero. Zeregin hori familian egiten dute gainera, katalogoa eskuetan hartuta edo ordenagailuaren aurrean. Onartu dute batzuetan ez zaiela erraza egiten produktu erakargarri asko dakartzalako katalogoak, "ongi sailkatuta" eta "garrantzitsua den informazioarekin" gainera: adin tartea, prezio orientatiboa... Aurten ere erabiliko dutela aurreratu dute eta familia guztiei gomendatu diete paperean nahiz sarean katalogoa begiratzea.



propioa" ematea izan da diseinatzaileen helburua.

Ekimen honen sustatzaileek nabarmendu dutenez, paperezko katalogoan erabiltzaileek ez dituzte topatuko atari digitalean bezainbeste produktu, baizik eta atalka (jostailuak eta jokoak, musika, DVD filmak, aplikazioak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala eta komikiak) antolatutako hautaketa bat baizik.

Eskualdeko udaletako Euskarazko zerbitzuek jakinarazi dutenez, Buruntzaldea osatzen duten sei udalerrietatik lautan (Andoain, Hernani, Urnieta eta Usurbil) eskolen bitartez banatuko dituzte katalogoak; Lasarte-Oria-koak, berriz, etxez etxeko banaketa egingo du; eta, Astigarragak, udalerrri horretako eraikin publikoetara eta liburu dendetara eramango ditu eskuorriak.

Nobedadeen buletina jasotzeko aukera

Euskarazko Produktuen Katalogoaren nobedadeak etengabe berritzen dituzte atari digitalean. Horien berri unean-unean izan nahi dutenek aukera paregabea dute www.katalogoa.eus/buletina helbidean harpidetu eta berrikuntzaz betetako hamar buletin jasotzeko urtearen buruan. Helburua hau da: merkatuan aurki daitezkeen euskarazko azken nobedadeak ere erabiltzaileen eskura jartzea, modu erraz batean.

KATALOGOAREN ATARI DIGITALEAN 10.000 PRODUKTU BAINO GEHIAGO DAUDE AUKERAN

JOSTAILUAK ETA JOKOAK

- Adarbakarrak
- Animalien mundua

LIBURUAK

- Amestoki goxoa
- Anderea

MUSIKA

- Trapasen kaxa magikoa
- Batetik bestera

DVD FILMAK

ALDIZKARIAK

GURASOENTZAKO MATERIALA

APPak

KOMIKIAK

Liburuak 12-14 urte

- Albo ondorioak
- Argia aurkitzeko bidaiak
- Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian

Liburuak +14 urte

- Gazako eguteroak
- Izarrak eta haitzak
- Narrazioak eta olerkiak

Musika

- Behin biltzea
- Azken batean

Komikiak

- Itsaso gaztaren balada bat
- Mugako dragoiak



Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna

Adierazpen instituzionala irakurri zuten Urnietan. Bertan izan dira, besteak beste, Bagara talde feministako kideak. Indarkeria pairatu duten emakumeak gogoan, minutuko isilunea egin zuten

Erredakzioa URNIETA

Adierazpenean, "gaitzespen ir-moa" adierazi zuten indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean: "Eta beste erakunde batzuekin, mugimendu feministarekin eta gizarte osoarekin modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu".

Konpromiso-sorta

- "Gure herrian, euste-horma kolektiboa aktibatzea, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo/eta ezereztan duen edozein erreakzio matxistaren aurrean, tokiko eragile guztiekin lan eginez, mezu ukatzaileak indargabetezko eta tokiko bizitzan barneratzeko eta halakoak sortuz: partaidetza-mahaiak, komunikazio bateratuak, erantzun publiko eta kolektiboko protokoloak...
- Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea, batez ere mutilei zuzendutakoak, egunero jasotzen dituzten mezu misoginoak, emakumeen aurkako mezu bortitzak eta berdintasunaren aurkakoak desaktibatzeke.
- Gune formal eta informaletan, eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza- eta prestakuntza prozesuak indartzea, indarkeria matxistaren aurrean mezu eta jarrera ukatzaile horiei aurre egiteko eta desaktibatzeke.
- Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko bideak erabiltzea, eskola-curriculumean jarrera ukatzaileetan eta jarrera matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko.
- Berdinsareatik, eta beste sareetatik ere, udalerriek sarean ekiteko aukera indartzea, negazionismoari aktiboki aurre egiteko eta udalerriek indarkeria matxistaren aurka kolektiboki borrokatzeke egiten duten apustua berresteko".



Agurtzane Mercader eta Ainhoa Ostolaza udal ordezkariak irakurri zuten adierazpena.



Bagara talde feministako kideak bertan izan ziren. AIURRI



Gazte taldea, pankartaren atzean. AIURRI



Zaldundegi ondoko plazan egin zuten ekitaldia. AIURRI

Itaiaren ekitaldia, iluntzean

"Indarkeria matxistaren aurka borrokatu" lelopean, ekitaldia egin zuten Itaiak, joan den astelehenean, Zaldundegi alboko plazan. Poesia-errezitaldia egin zuten, lehenik; Juana Dolores idazlearen euskaratutako bi eta Itaiako kide baten beste bat. Naroa Agirre herrikidea ere hurbildu zen mikrofono aurrera, bertsoak kantatzera. Azkenik, egunari lotutako irakurketarekin biribildu zuten iluntzea. Honatx Agirrerren bertsoak:

Hainbeste erasorekin beltza da gure kronika esplotazioak osoa behar ditugu kritika baita indar polizialen jokaera hipokrita amets gaizto bihurtzen da komisarira bixita. Erailketek, erasoek sortzen dute polemika ta akusazio faltsutan dago fokua jarrita guk argi ikusten dugu non dagon problematika baina gure inguruak ditu begiak itxita.

Izan liteke polita norbait maitatzen hastea baina batzutan gerora etortzen da atakea irainak, hitz itsusiak esaten zunak "maitea" eta erlazio horretan amaitzen zaigu bakea. Ez dakigu nola alde egin, nola askatu katea nahiago dugu gau hauek isilean ematea baina eman behar diogu kontzertari tartea min ematen dun bakarra ez baita izaten kolpea.

Indarkeria matxista normalizatua bada nabarmen ikusten dugu matxismoan gorakada diskurtso atzerakoiak ez dira sorpresa jada haien inpunitatea noski onartezina da. Erasoez erailketek ematen dute ikara baina hori alda dadin ordua da beharbada pausua eman behar dugu rol aktiboagotara ta matxismoaren kontra antolatu behar gara.



Urnietako
udala



Elkarretaratzea Goikoplazan egin zuten, aurreko astelehenean. AIURRI

"Indarkeria matxista forma berriak hartzen ari da"

Andoaingo Asanblada Feministak adierazpen irmoa egin zuen Goikoplazan, herritarren aurrean: "Subjektu pasibo eta beldurti nahi gaituzte. Biolentzia eta autodefentsarako gaitasunik gabe. Baina nazkatuta gaude! Eta haserre gaude!"

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Asanblada Feministak elkarretaratzea egin zuen Goikoplazan, astelehen iluntzean. Gizarte osoari eragiten dion arazoa, garaian garaiko egoerara egokitzen ari dela salatzen zuten Goikoplazan: "Indarkeria matxista forma berriak hartzen ari da espazio birtualean eta une honetan ere, emakumeek autodefentsarako tresnak birpentsatu beharko ditugu. Kontatzen digute beldur izan behar dugula. Kontuz ibiltzeko. Ekitzeko leku eta pertsona ezezagunak, saihesteko desorduek. Badaezpada ere, etxeratze kolektiboetan egiteko bueltako bidea. Hartzeko guk ardura, eraso ez diezaguten. Izua erabiltzen dute gure bizitzak kontrolatu eta menderatzeko. Arriskua diziplinatzeko. Erruduntasuna, erantzukizuna bandoz aldatzeko. Subjektu pasibo eta beldurti nahi gaituzte. Biolentzia eta autodefentsarako gaitasunik gabe. Kontatzen digute haserreak eta amorruren kudeaketa pedagogikoa dela beti gure bidea. Baina nazkatuta gaude! Eta haserre gaude!".

Aldaketak oso motel doazela, eta ardurak hartzeko unea dela gogorarazi zuten. Arduraren hariari tiraka, eta "Ez bazara konponbidea, arazoa zara" leloari eutsirik, mezu zuzena zabaldu dute: "Arazo zarete eraso bat salatzen dugunean gure hitza zalantzan jartzen duzuenak; arazo zarete erasoren bat jasan dugunean justifikatzen edo errua guregan jartzen duzuenak; arazo zarete feministok urtetan salatzen gabiltzan indarkeriaren aurrean erantzukizunik hartzen ez duzuenak. Gizon gehienek konplizitatea, justifikazioa eta indarkeria matxistak desagerarazteko eta salatzeko konpromezu falta izaten jarraitzen duzue".

Egunerokoan ematen diren hainbat egoera

"Sexu erasoak, mugak eta irregularizazio egoerak, gorroto diskurtsoen gorakada, zaintzen banaketa desorekatua, jazarpen anonimoak... Ez dira kasu isolatuak eta emakume zein sexu-genero disidenteon osasun fisiko eta psikologikoan ondorio larriak ditu".

GIPUZKOA

Ekin.

Gipuzkoa oparagoa izateko.

Zaindu.

Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.

Ondo eta duin bizi daitezen.



GIPUZKOA
Foru Aldundia

"Gurea erabil dezakezu" kanpaina, Urnietan

"Altxa burua" taldeak "Gurea erabil dezakezu" kanpaina abiatu du herrian, Urnietako Udalarekin elkarlanean, haurrei lehen smartphonea emateko adina atzeratzeko helburuz, bai eta mugikorrik gabeko nerabezaroa sustatzeko xedez ere

Erredakzioa URNIETA

Ekimenean parte hartzen duten merkatalguneek eta zerbitzu publikoek pegatina berde bat izango dute erakuslehoan ikusgai, "Gurea erabil dezakezu" adierazten duena. Nahi izanez gero, bertako telefonoak erabiltzeko aukera emango zaio horrela behar duen orori: "Aurrerantzean, nerabeak pegatina hori duen edozein espaziotan sartu ahal izango dira ustekabeko edo larrialdiren bat dutenean. Horrela, ez da beharrezkoa izango telefono mugikorra izatea gurasoekin harremanetan jartzeko".

Kanpaina zabalik dago merkatalgune berrietara

Urnietako denda edo negozioren batek kanpainara gehitu nahiko balu ondorengo telefono-zenbakira deitzeko aukera duela jakinarazi du Urnietako Udalak: 943 034 339.

Kanpainaren xedea argia da: Haurrei lehen smartphonea



Azken belaunaldiko gailu digitalak, Samsung etxeok. WIKIPEDIA

emateko adina atzeratzeko helburuz, bai eta mugikorrik gabeko nerabezaroa sustatzea: "Telefono mugikorren gehiegizko erabilera goiztiarra eta horrek sortzen duen mendekotasuna gurasoen kezka iturri izaten ari

da". Bada, kanpainaren bitartez, joera hori eten nahi du taldeak, "nerabeek espazio publikoa berreskuratatu, jolastu eta hitz egin dezaten".

Hasiara batean, urtebeteko iraupena izango du kanpainak.



AIURRI

Kantazaun, kalez kale

Euskal kantagintza biziberrituko du Kantazaun taldeak, ostiral honetan, Urnietako kaleetan. Euren ereserkia ahaztu gabe: "Urnietako Kantazaun taldea / gatoz kale denak alaitzera / damutzeko arriskurik ez duzu / gogotsu animatzen bazara". San Juan plazatik abiatuko dira, 19:00etan hasita. Irteerak, ohi bezala, hilabetearen amaierarekin bat egiten du.

Euskararen eguna

Datorren asteartean Euskararen Nazioarteko eguna ospatuko da. Urnietan, esaterako, kalez kale ibiliko da Egapeko komunitatea. Izan ere, ikasle, irakasle eta guraso taldea kalera aterako da euskara aldarrikatzera. Arratsaldean izango da ekimena. Euskaraz bizitzearen garrantziaz jabetzea izan zen iazko ospakizunetan nabarmendu zuten ideietakoa.



AIURRI

ZOKKETA



Aiurriko harpidedun izateak saria dakar

ANTZERKIA

Urnietako harpidedunen artean zokketa egin eta gero, sariduna Gotzone Astiasaran da. Zorionak!



UDALAK

Partaidetzaren kultura

Adin guztietara zabaldu asmoz, aurrekontu irekien parte hartze prozesuaren aurkezpena Magale ikastetxeko eta Egape ikastolako LH-6ko ikasleentzako iritsi da. Hilabete honetan aurkezpen saioetan izan dira Jorge Segurado alkatea eta Agurtzane Mercader zinegotzia. Udalak zabalduko oharraren arabera, saio emankorrak izan dira.



Ansa. ORIAMENDI

Urnietarren omenaldia, Imanol Ansari, ostiralean

Sanmielen atarian, Imanol Ansak buruz buruko erremonte txapelketako finala irabazi zuen. Bigarrena du bere kirol ibilbidetan. Ostiral honetan, urnietarrek omenaldia egingo diote herrikideari. Udal pilotalekuan izango da, arratsaldeko 18:45ean hasita. Lehenago, Pilotako Eskolako umeez partidak jokatuko dituzte, 18:00etatik aurrera.



AIURRI

UZEkoen omenaldia Iturriari

Urnietako txirinduzaleek denboraldiari amaiera emateko babarrun-jatea antolatu zuten Eteneta elkartearen, eta bertara gonbidatu zuten Mikel Iturria txirindularia. Erretiroa iragarri zuen urnietarrek, eta UZEkoek omenalditxo egin zioten. Txelu del Dolek hitz batzuk izan zituen harentzat eta, jarraian, oroigarria oparitu zioten.



AIURRI



AIURRI

Pasang Temba, Andoainean

1980an, Martin Zabaletarekin batera, Everesteko gailurrean Ikurriña jarri zuen Pasang Temba sherpak. Geroztik, ezagun egin da. Euskal Herrian barrena ibili da egunotan eta aurreko astean Euskalduna Mendigoizale Taldeak antolatzen duen Mendi Astearen parte hartu zuen. Bastero Kulturgunean zaletuen txalo zaparrada jaso zuen.



AIURRI

Igerilariak, Gipuzkoako Neguko Ligan

Neguko Ligako 2. jardunaldian bertako hainbat igerilari izan ziren. Tartean, Ane Meyer, Ander Martinez, Laida Guerrero eta Oihan Matute. Buruntzaldea IKT taldeko kideak pozarren daude kirolari gazteek erakutsitako jarrerarekin. Hurrengo jardunaldia Lasarte-Oriako M. Chourraut igerilekuan izango da, abenduaren 15ean.

BI NAKAKO

ORONA Fundazioa

AZAROAK 30 LARUNBATA | 16:30ETIK AUERRERA
GALARRETA JAI ALAI HERNANI

1. PARTIDA | **LOITEGI • ZUBIRI** vs **JABALERA • APEZETXEA**

2. PARTIDA | **ANSA II • JUANENEA** vs **SEGUROLA • BARRENETXEA IV**

3. PARTIDA | **URRIZA • LARRAÑAGA** vs **EZKURRA II • AZPIROZ**

ORONA

AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ANTZERKIA

URNIETA Aurrestreinaldia

"Heisenberg", Tanttaka teatroa konpainiaren eskutik. Aktoreak: Ramon Agirre eta Naiara Arnedo. 19:00, Sarobe. Azaroak 28, osteguna.

ANDOAIN Miñan

Artedramak oholtzara eraman du Amets Arzallusek Ibrahima Balderen ahotik jasotako lekukotza. 19:00, Sarobe. Sarrerak agortuta. Abenduak 3, asteartea.

DANTZA

ANDOAIN Dantza eta ondarea Node dantza konpainiaren berriena hiru piezaz osatuta dago: hiru ahotsen eszenaratzea da. 19:30, Sarobe. Abenduak 29, ostirala.

JAIALDIA

ANDOAIN Gabon Jaialdia

"El mijón de los Castúos" Extremadura etxearen eskutik. 12:00, Bastero. Abenduak 5, osteguna.



Mikel Laboa. AIURRI

ANDOAIN Erakusketa: "... izan liteke konstelazio, izan gabe izar..."

Sustatzaileen ahotan, "Mikel Laboaren bizitzari, haren ahotsari eta haren musikari egiten zaion omenalditzat hartu daiteke erakusketa". Bastero Kulturgunea. 18:00, irekiera ekitaldia. Azaroak 29, ostirala.

ANDOAIN Euskararen alde

Larramendi Bazkunaren eskutik. 19:30, Sarobe. Abenduak 5, osteguna.

DOKUMENTALA

ANDOAIN Aire!

Maurizia Aldeiturriaga, XX. Mendearen hasieran euskal musika herrikoia goitik behera aldatu zuen panderojole ikonikoan inspiratuta. 18:30, Bastero. 3 euro. Abenduak 4, asteazkena.

DANTZA

URNIETA Amama

Aukeran konpainiaren eskutik. Euskal dantzetan oinarritutako koreografiaren bidez, zazpi ipuin kontatuko dira, zazpi euskal lurraldeetako herri banatan kokaturik gai eta pertsonaia ezberdinekin. Edu Muruamendiarazzen zuzendaritzapean. 17:30, Sarobe. 3 euro. Abenduak 15, igandea.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Azken erromantikoak
Azaroak 30, larunbata. 19:30.
Abenduak 1, igandea. 19:30.
Abenduak 2, astel. 17:00, 19:30.

Central Parkeko

heroiak
Azaroak 30, larunbata. 17:00.
Abenduak 1, igandea. 17:00.



SINOPSISIA

Azken Erromantikoak

Zuzendaria: David P. Sañudo. **Aktoreak:** Miren Gaztañaga, Maika Barroso, Eric Probanza, Itziar Aizpuru, Ignacio Mateos, Joan Sole, Font Garcia, Ion Zumelaga,... **Herrialdea:** Euskal Herria (2024). **Hizkuntza:** Euskara. **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 105 m.

Eleberritik zinema-aretoetara

Irune bakartia eta hipokondriakoa da, Arabako herri industrial baten kanpoaldean dagoen paper fabrika batean lan egiten duena. Bere bizitza ezagunen zirkulu txiki batera mugatzen da: lankideak, lagun baten antzeko izan daitekeen auzokide bat eta trenen ordutegiak kontsultatzen dizkion Renfeko langile bat. Haren oreka hauskorrak eztanda egingo du bular batean kontu itsusi bat detektatzen denean, eta horrek denboran bat egingo du lan-gatazka batekin.



ZOKKETA

ANTZERKIA

Aiurriko harpidedun izateak saria dakar



Urnietako harpidedunen artean 2 sarrera zozkatuko ditugu.

Parte hartzeko modua:

Idatzi "Amama", zure izen-abizenak eta bidali:

* Whatsapp: 619 163 537

* E-posta: urnieta@aiurri.eus

Amama

Aukeran Dantza Konpainia

Abenduak 15, igandea.
17:30. Sarobe, Urnieta.

Amama batek ipuinak kontatzen dizkio bilobari. Euskal dantzetan oinarritutako koreografiaren bidez, zazpi ipuin kontatuko dira, zazpi euskal lurraldeetako herri banatan kokaturik gai eta pertsonaia ezberdinekin. Ipuinen irakurketarekin batera, dantza izango da ipuinen irudikapen koreografikoaren protagonista.

Oraingo honetan, 25 urte baino gehiagotan lehen aldiz, Aukeran Dantza Konpainia haurren mundura hurbiltzen ari da espresuki, errespetuz eta gogotsu. Ipuin tradizional zaharren irakurketa berritua, bertaratutakoentzako bidaia ekarriko duten koreografia berriekin batera. Gure herriko geografia ezberdinetan barrena eramango gaitu, pertsonaia harrigarriekin.

TOKIKOM jardunaldiak

TOKIKOM tokiko hedabideen federakundeak jardunaldia antolatu zuen Iruñerriko Artikan, aurreko ostiralean. Euskarazko toki komunikabideen erronkak aztertzeko eta gogoetak partekatzeko abagunea izan zuten hainbat adituren laguntzaz. Argazkian, Aiurriko lantaldeko Jon Ander Ubeda, Maddi Trutxuelo, Alba Cabrera Jauregi eta Garbiñe Ugartemendia.



TOKIKOM



Lasko txarangako kideak. LASKO

LAN-ESKAITZA: AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Mantenuko langile bat behar dugu gure ikastolan, 2025eko urtarriletik urrira bitartean ordezkapen bat egiteko. Lanpostuaren profila honako hau da: Goi mailako

formakuntza duen pertsona, mantenu lanetan eskarmentua eta euskara maila altua izatea. Eskaerak aurkezteko epea 2024ko abenduaren 3an bukatuko da.

LOTERIA

"Ontza elkarteko Gabonetako loteria erosi nahi duzuenok, Bastero Loteriak administrazioetik pasa zaitezke ere. 20 euroko dezimoz egingo da salmenta".

LAN-ESKAITZA

"Sukaldeko laguntzaile bila gabiltza, sagardotegi denboraldian Altunan (Urnieta) lan egiteko. 2025eko Urtarrilaren 22tik Maiatzak 11ra. Informazioa: 650 074 001".



AIURRI

Egunean Behin 16D, Aiurri taldea

Aurrera doa lehiaketa ezagunaren denboraldi berria. Azken bi asteetako irabazleak Jonpoz eta Inge izan dira. Horiek ere Arruti gozotegiko sari bana eskuratu dute. Aurreko asteetan Aiurri taldeko irabazleak honako hauek izan dira: Beñat, Maite, Ioritz, Nereita, Mirener eta Txapar. Lehiaketa azken txanpan sartu da, beraz, zorte on gainerako partaideei.



AIURRI



AIURRI

Kalejira, Santa Zezilia gogoan

Biolina, klarineta, saxofoia, trikitixa, panderoa... haizezko, sokadun eta perkusio instrumentuak soinean hartu eta kalez kale bili ziren, musika joz, Lourdes Iriondo Urnietako udal musika eskolako ikasleak. Euritik babesteko Kontzejupera hurbildu ziren eta bertan hainbat pieza jo zituzten elkarrekin.



AIURRI

Gazte Eguna Urnietan, larunbat honetan

Eguerdian ekingo diote egun bereziari, Frontoi tabernatik abiatuko den trikipoteoarekin

Erredakzioa URNIETA

Gazte Eguna iristear da, Poxta Zaharrek antolatuta. Hala, Gabonen atarian ere herrian gelditzeko aitzakia eman nahi du elkarteak, larunbateko egitarauarekin. Eguerdiko 12:00tan ekingo diote egun bereziari, Frontoi tabernatik abiatuko den trikipoteoarekin. Kalez kale aritu ostean, Plazido Muxika plazan egingo dute azken geldialdia, mahaiaren bueltan herri bazkariak gozatzeko. Aurten, Kalamonaren eskaintza izango da, bi menu posiblerekin: bate-tik, babarrunak, haragi erregosia eta natillak; bestetik, babarrunak, pistoa eta mazedonia. Joan den asteartea, hilak 26, izan zen azken eguna txartela erosteko. Bertara joaten direnei egunarekin lotutako zapia oparitutako zaiela iragarri zuen Poxta Zaharrek joan zen zerbait argitaratutako elkarrizketan.

Behin tripa bapo beteta, mozkor-jolasen txanda izango da, jarraian, Tolosatik datorren Lasko txarangari lekukoa emateko. Parrandak, oster, gaueko ordu txikiak arte iraungo du Urnietan, izan ere, Egur tabernaren parean, DJ Revu herriki-dea izango da 22:00tatik aurrera musika jartzen.

ANDOAINGO EUSKERA, BIHOTZETIK KALERA!

BASTERON

jaialdia

ABENDUAK 5 - 19:30



**Bete dezagun
Basteroko
auditorioa!**

Olagain Udal txistulari elkarte / Urki Dantza Taldea / Begoña Tolaretxi /
Rebeka Gestoso & Susana Cencillo / Ramon Beraza / Lizar Makil dantza taldea /
Iñaki Eizmendi / Alberto Agirre abesbatza / Maizorri / Eneritz Jauregi /
Iratxo taldea / Mujika-Tolaretxi familia, eta gehiago...

Sarrerak salgai:
Elizondo taberna eta
Delgado liburudenda



Antolatzailea:

MARSENÍ



Babesleak:

ANDOAINGO UDALA



IRIAL RITSA

